

## Zabalik dago matrikula-aldia Euskal Kulturgintzaren Transmisioa aditu tituluaren 6. edizioan

2016/07/20

Prest dugu Euskal Kulturgintzaren Transmisioa (EKT) aditu tituluaren 6. edizioa. Azken edizioan bezalaxe saio presentzialak hilean behin emango dira, modu trinkoan, asteburuetan. Bestetik, hizlariekin hartu-eman sakonagoa izateko aukera egongo da. Aurreko edizioetan bezala, oraingoan ere, euskal kulturaren ordezkari ezagunek hartuko du parte Mondragon Unibertsitatearen Aretxabaletako campusean egingo diren saioetan.

### Hilean behin urritik ekainera

Oraingo honetan ere, ikasle eta hizlariak hilean behin elkartuko dira, hileko asteburu batean. Saioak hasiko dira larunbatean 09:00an eta bukatuko dira igandean, 13:30ean. Ikastaroaren egutegiari dagokionez, eskolak hasiko dira 2016ko urrian 22an eta amaituko dira 2017ko ekainaren 18an.

Saioak egingo dira, Aretxabaletan, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean. Otorduak ere bertan izango dira, eta, hala behar duenarentzat, lo egiteko lekua ere egongo da.

### Saio presentzialak izango dira hurrengo egunetan:

#### 2016an

- Urria: 22-23
- Azaroa: 26-27
- Abendua: 17-18

#### 2017an

- Urtarrila: 21-22
- Otsaila: 11-12
- Martxoa: 18-19
- Apirila: 8-9
- Maiatza: 6-7
- Ekaina: 17-18

### Hizlari ugari

Aurreko edizioetan berariaz landu genituen bi gaietan sakontzen jarraituko dugu:

Batetik, *euskaldunon nazio kulturalaren afera* hartuko dugu hizpide. Modu diakronikoan egun ditugun eztabaida askoren erdigunean dauden gaiak jorratuko ditugu. Hala nola, memoria-ariketek identitatearen eraikuntzan duten lekua bezala, subalternitate-ariketak dialektikoki gurean nola gertatzen diren aztertzea.

Bestetik, mikrosoziologia hartuko dugu hizpide, adibidez, familiaren baitan bertan bideratzen den *kultur transmisioari* ere erreparatu nahi diogu. Zein pisu du aldagai honek graduondoan parte hartuko duten aritu eta adituen artean? Zein nola bideratu nahi izaten dute aurreko belaunaldiek transmisio hori? Zein nola jasotzen dute ondorengoek legatu hori?

Horrez gain, honako gaietara hurbilduko gara: gaur egungo gizarte garaikidearen gakoak, benetakotasun kontzeptuaren adierak gizarte (hiper)modernoan, kultura eta ekonomiaren arteko loturak merkatu-lojistikaren testuinguruan e.a.



Seigarren edizioko eskuorriaren azala.

## Euskal kulturaren erronkak gaurko gizartearen auzien baitan

- Joseba Zulaika, Iban Ayesta, Ibai Iztueta, Gema Lasarte, Eduardo Apodaka, Uxo Anduaga, Kepa Fernández de Larrinoa, Ana Gandara, Markos Zapiain.

## Kultura eta identitatea

- Joseba Sarrionandia, Jose Angel Irigaray, Eneko Bidegain, Mari Jose Azurmendi, Itsaso Olaizola, Izaro Arroita, Lorea Agirre, Ane Albisu, Juan Inazio Hartsuaga.

## Kultura eta ekonomia

- Joxe Mari Larramendi, Itziar Nogueras, Xabier Alkorta, Miren Manias, Joseba Barandiaran, Miren Azkarate, Aitor Arregi.

## Sortzaileak: mamia eta atsegina

- **Literatura:** Itxaro Borda, Castillo Suarez
- **Dantza:** Oier Araolaza
- **Musika:** Mixel Ducau, Benito Lertxundi, Maite Arroitauregi-Mursegó, Gorka Urbizu, Joseba Tapia
- **Bertsolaritza:** Ainhoa Agirreazaldegí
- **Zinema:** Aitor Arregi, Iban Ayesta

## SORguneak ikertegia: formazio teorikoa eta aurreko edizioetako sozializazioa

- Iñaki Urruzola, Nekane Goikoetxea, Julen Arexolaleiba

## Matrikulazioa: epea eta prozedura

Adituan izena emateko zabalik egongo da matrikula epea 2016ko uztailearen 18tik urriaren 14ra.

Bi modu daude matrikula egiteko:

1. Irailetik aurrera Eskoriatzara etorri, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatera. Goizez, 08:30-12:00; arratsaldez, 14:30-17:30
2. Bidalita izen-emate orria eta matrikulazio orria posta arruntetik, gutun zertifikatuan, hurrengo helbidera: Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea. Dorleta auzoa z/g. Eskoriatza 20540 (Gipuzkoa).

## Prezioa

- Matrikula: 2.500 euro (hiru zatitan ordaintzekoa), MUKide Mondragon Unibertsitateko ikasle ohien elkarteko kideek %10 merkeago.
- Otorduak eta lotarako tokia: 300 euro inguru.

## Informazio jasotzeko eta izena emateko

- Posta elektronikoa: [kulturgintza@mondragon.edu](mailto:kulturgintza@mondragon.edu)
- EKT 6: oraingo edizioaren eskuorria.
- EKT 6: izen-emate orria.
- EKT 6: matrikulazio orria.
- EKT 6: Aditua Profesionalen Prestakuntzako webgunean.
- Aurreko edizioen gaineko informazioa.
- 

o